

berria «Bai, irten daiteke eskola-jazarpenetik».

Zubizarretak jazarpen basatia jasan zuen eskolan: bere buruaz beste egiteko zorian egon zen, kolpeen ondorioz koman... 'Subnormal' komikian jaso dute haren bizipena. «Hitz horrekin apurtu zidaten haurtzaroa».



ARITZ LOIOLA / FOKU
2021eko azaroak 12

Handitasuna ez da tamainaren araberakoa (bakarrik). Iñaki Zubizarreta Telleria (Madril, 1972) Caja Bilbao eta Pamesa Valentzia saskibaloitza taldeetan egindako urteengatik izango da ezaguna askorentzat. *Subnormal* izeneko komikiaren protagonista delako ere bai, beste askorentzat. Ikaskide batzuek ostikoak eman zizkioten aurpegian baina gaur egun eskoletan ibiltzen da jazarpena salatzen.

Subnormal. Titulu gogor samarra da komiki batentzat...

Hitz horrekin apurtu zidaten haurtzaroa. Komikiak ez du ezer ezkututzen; gertatu zena kontatzen du.

Komikiak izenburu hori behar zuen, orduan?

Erabat. Argi utzita asmoa ez dela sekula izan desgaitasuna duen jendea gutiеста; inolaz ere. Eskola-jazarpenaren gordina erakutsi nahi da, benetako aurpegia, deitzen dizuten horretatik hasita.

Nola sortu zen ideia?

Panini argitaletxeko editorearena izan zen ideia [Jose Luis Cordoba]. Erretiroa hartzera zihoan, eta zerbait berezi egin nahi zuen. Nire historia ezagutzen zuen, eta interesgarri iruditu zitzaion horren berri komiki baten bidez ematea. Gainditze baten historia da. Ni, jazarpena jasan duten milioika biktimen artean bat baizik ez naiz. Helburua zen eskola-jazarpena gainditu daitekeela erakustea. Bai, eskola-jazarpenetik irten daiteke.

Zenbaitek esan dizute: «itxura horrekin, jazarlea zeuk dirudizu, jazarpena jasan duena baino».

Askok. Gehiegik. Arazoa da jendeak ez daukala ikusmolderik. Ez dela gai apur bat harago begiratu eta ikusteko. Esaten diet gauza bat dela ni orain ikustea, daukadan fisikoarekin, baina nik kontatzen ditudanak 11 urteko ume baten bizipenak direla, berdin dela zer tamaina zeukan, ume bat zela, eta ezin zuela defendatu behin eta berriro birrintzen zuten irakasle eta ikaskideen aurrean.

Izan ere, ez dago jazarleen eta jazarpena jasaten dutenen soslairik?

Hau ez da soslai kontua, eta ez da erakunde edo ikastetxeen arazoa. Gizarte osoaren arazoa da, eta aspaldi egin digu ihes eskuetatik. Arazo horretan, gutako bakoitzak dauka erantzukizuna, egiten dugunarengatik, edo egiten ez dugunarengatik, edo egiten uzten dugunarengatik. Horretan guztian dago erantzukizuna. Jendearentzat beste aldera begiratzea da errazena.

Zure buruaz beste egiteko zorian zinen, jipoitua eta bi egunez koman...

Baina nire kasua bat gehiago baizik ez da! Ez da berezia. Nik nirea kontatu nuenetik, zenbat gehiago egon ote dira... Nik gaur egun esan dezakedana da nire historia, bere gordintasun guztiarekin, bizitzaren opari bat izan dela. Gainditu dudalako, ongi gainditu dudalako, eta gazteenekin konektatzeko balio didalako. Beste askok ez dituzten bizipenak eta motxilak dauzkat haiekin bat egiteko eta enpatia izateko.

Eraginkorragoa izan da kontatzea, jauzi egitea baino?

Terapia bat izan da. Jende askok esan dit, gazteek zein helduek, nire bizipenak entzun ostean erabaki zutela erokeria bat ez egitea. Bakarra salbatu bada, nahikoa da. Baina kontua da jada ez dakidala zenbatek aitortu didaten hori.

Nola apurtzen da zuk aipatzen duzun «isiltasunaren legea»?

Ez dakit jada zenbat hitzaldi eman ditudan. Urte asko daramatzat horretan. Baina benetan atentzioa ematen didana da gazteek zein helduek zer guti daukagun landuta *salatu* terminoa. Akatsa ez da gazteena; helduei galdetzen diezu, eta inork ez daki azalpenak ematen salatariak eta haren jokabideaz.

Zerbait esaten baduzu, salatzaile bihurtzen zara. Jazarleak darabilen gezurrik handienetako bat da hori. Bestea, beldurra da: ondorioari beldurra. Zerbait esaten baduzu, salatzailea zara. Eta benetan gertatzen dena da konplize ari zarela bihurtzen, eta isiltzen bazara jazartzen ari direnen erantzukizun berbera duzula.

«Jazarle pasiboa» aipatzen duzu.

Denok gara jazarle pasiboak, denok. Egon naiz euren buruaz beste egin duten haurren familiarekin, euren ikaskideekin eta jazarleekin. Ez naiz inor justizia neure kabuz egiteko, baina azken horiei galdera bakarra egiten diet. Badakizu zein?

Zein?

«Badakizue zertan bihurtu zareten, ezta? Bada, bizi horrekin». Egin dutenei zein isildu direnei. Hori da aldatu behar duguna. Ea inoiz iristen den galdera hori egin behar ez dudan unea. Edo zuk gai horri buruz galdetuko ez didazuna.

Zoritxarrez...

Bai, jarraitu beharko dut horretan. Eta gorputzak eusten didan arte jarraituko dut borrokan. Gerra asko emango dut oraindik.

<https://www.berria.eus/paperekoa/1886/040/001/2021-11-12/bai-irten-daiteke-eskola-jazarpenetik.htm>

(IKASek moldatua)